

ibilaldiak

■ Maiatzak 20-21

ARABA

Gasteiz (*Gazteiz M.T.*) • Taldearen XIX. Iraupen Ibilaldia. Altubeko gaina, Astaez, Burbona, Nafakorta, Odoriaga, Gorosteta, Lekanda, Gorbeia, Berretin, Murgia, 36,3 km guztira. Informazioa: 945-250354.

Laudio (*Goikogane*) Finalisten 40. Jaia, Laudion.

BIZKAIA

Basauri (*Baskonia*) • Iparraldera asteburu osorako. Tel: 94-4495728.

Bilbo (*Mendizale Zoroak*) • Ursaltu (552 m), Taldeko bazkaria.

Bilbo (*Juventus*) • Urkiola, Izarra, Saibi, Altungana, Oderiaga, Egiriñao.

Galdakao (*Ganguren*) • Saioa (1.418 m), Belatetik.

Leioa (*Leioa M.T.*) • Ebroko zintzurra, Valdelateja-Valdelateja.

Meatzaldea (*Meatzal-Fabrik*) • Asteburua Europako Mendietan.

GIPUZKOA

Azpeitia (*Lagun Onak*) • Txalintxora. Gailurrean salda, umeen jolasak eta erromeria izango dira. Tel: 943-812025.

Donostia (*C.V.Camping*) • Donaixti-Ibarre, Etxekortia (1.206 m), Ahuski aterpea, Lepo Txipia (1.430 m), Iratiko eski estazioa. Tel: 943-428479.

Hernani (*Mendiriz-Mendi*) • Valderejoko Parke Naturala. Gazte-txoentzat irteera. Tel: 943-332745.

Oiartzun (*Girizia*) • Larunbatean 15:30ean irteera Larunsera. Igandean Laruns, Gourette, Pene Blaque, Pla Segouneko lakua, Amoulat irteera. Informazioa: 943-490835.

Tolosa (*Alpino Uzturre*) • Urepel, Adi, Eugi. Tel: 943-652789.

Zumaia (*Inda-Mendi*) • Madotz, Altxueta, Baraibar.

NAFARROA

Altsasu (*Mendigoizaleak*) • Berriosuso, Egillor.

Bera (*Agerra M.T.*) • Mendi irteera Berako mendietan barna. Eguerdiko 14:00etan bazkaria, Agerra Mendi Taldearen egoitzan. Izena ortzeguna baino lehen eman behar da, elkartearen bertan.

Elizondo (*Baztango Mendizaleak*) • Baztango VII. Mendi Ibilaldia. Berroeta, Abartan, Saioa, Okolin, Belate, Mendiola, Berroeta. 32 kilometroko ibilaldia. Argibide eta izenemateak: 948-581279.

Iruñea (*Nafarroa K.E.*) • Belate, Uitz. BTT zeharkaldia.

Iruñea (*Gaztaroa*) • Panticosa-ko bainuetxea, Algas. Tel: 948-143419.

Lizarrar (*Mendizaleak*) • Txindoki.

■ Maiatzak 27-28

ARABA

Gasteiz (*Araba Orientazio Taldea*) • Larunbatean entrenamendua Entzia mendikatean, eta igandean Euskal Herriko Txapelketa. Informazioa: 945-170700.


Laudio (*Goikogane*) • Urkiaga, Alba, Okoro. Tel: 94-6725021.

bidaztiaren orriak



Izenburua: El explorador perdido. **Egilea:** Conrad Anker eta David Roberts. **Argitaletxea:** Ediciones Peninsula. **Prezioa:** 2.300 pta (92 lib).

Azken aldian George Liegh Malloryren inguruan liburu ugari argitaratu dira. Desnivelek *Los huesos de Mallory* eleberrria kaleratu zuen, eta orain Peninsulak Malloryren gorpuaren aurkuntza azaltzen duen liburua atera du, Ankerrek (berak aurkitu zuen gorpu) eta Robertsek idatzia. Ankerrek eskalatzailearen soslaia ere agertzen du



Izenburua: La vuelta al mundo en 20 dias. **Egilea:** Bertrand Piccard eta Brian Jones. **Argitaletxea:** Ediciones Peninsula. **Prezioa:** 3.700 pta. (148 lib.)

1999ko martxoaren 21ean Bertrand Piccard eta Brian Jones Egiptoko basamortuan lurreratu ziren, globoan munduari itzulua gelditu gabe eman eta gero. 20 egun haietako kontakizuna eta hausnarketa jasotzen da liburu honetan.

BIZKAIA

Bilbo (*Mendizale Zoroak*) • Murgia, Urratxa Haitza (1.056 m), Arraba, Zeanuri.


Bilbo (*Egunsentia*) • Araia, Albeiza. Tel: 609-417440.

Bilbo (*Bidea Orientazio Taldea*) • Larunbatean entrenamendua Entzia mendikatean, eta igandean Euskal Herriko Txapelketa.

Bilbo (*Deustuko Mendizaleak*) • Erlo, Xoxote. 94-4479681.

Sestao (*Alpino*) • Agüera, Alto del Caballo (1.482 m), Picon Blanco (1.512 m), Sia mendatea (Burgos). Tel: 94-4721379.

Sodupe (*Gallarraga*) • Kanpezu, Costalera (1.234 m).



NAFARROA

Altsasu (*Mendigoizaleak*) • Lakuntza-Amezketar ibilaldia. **Elizondo** (*Baztango Mendizaleak*) • Iparla. **Iruñea** (*Nafarroa K.E.*) • Aritxulegi, San Martzial.

ikastaroak

■ Maiatzak 27-28

Donostia (*Mendiak eta Herriak*) • Harkaitzeko eskalada ikastaroa. Hastapena. Carrascal Eskolan. Talde murriztuak. Gaiak: igoera eta segurtasun, anklajeak eta rapelak. Informazioa: 948-513233.

Donostia (*Mendiak eta Herriak*) • Mendiko eskia. Tailonera (3.144 m) igoera. Gavarnieko zirkuan. Irteera, maiatzak 20, Donostiatik, 08:00etan. Tel: 948-513233.

Donostia (*Mendiak eta Herriak*) • Añamendiak udaberrian: Arbizonera (2.831 m) igoera. Elur eta harkaitzean hastapena. Gaiak: segurtasuna igoera eta jaitzieran. Sokaren erabilpena. Tel: 948-513233.

■ Maiatzak 27-28 eta ekainak 3-4

Donostia (*Goimendi Eskola*) • Hastapena eta segurtasuna goimendian (haitz alpinismoa). Ikastaroa Atxarten eta Midi d'Ossaun izango da. Jon Ugartekezuzendua. Informazio gehiago 943-461449 eta 943-780843 telefonoetan.

emanaldiak

■ Maiatzaren 19tik

Azpeitia (*Lagun Onak*) • Mendiko Astea. Asteartean, maiatzak 23, Eneko Pouk Urte bat zuri-beltzean emanaldia

eskainiko du. Asteazkenean, Hiru handi mendiko eskian (Posets, Aneto, Perdido) eskainiko dute Batis Goikoe-txea eta Migel Angel Otxoak. Ostegunean, Josu Iztuetak Hiru pauso, hiru norabide emanaldia eskainiko du. Emanaldi guztiak 20:30ean, Enparan dorretxean.

Bera (*Agerra M.T.*) • Mendiko Astea amaitzeko, Izaskun Abril geografoak Berako mendien historiari buruzko hitzaldia eskainiko du gaur, iluntzeko 20:00etan, taldearen egoitzan.

Beasain (*Kultur Etxea*) • Marpol taldeak Camino de las estrellas. Caminos de Santiago a su paso por Gipuzkoa emanaldia eskainiko du gaur 20:00etan, Aizkorri aretoan.

Legazpi (*Kultur Etxea*) • Josu Iztuetak Hiru pauso, hiru norabide diaporama eskainiko du gaur 20:00etan, Kultur Etxean.

lehiaketak

■ Ekainaren 12a arte

Donostia (*Gipuzkoako Mendizale Federazioa*) • Mendiari eta ingurugiroari buruzko diapositiba lehiaketa. Mendiaren aberastasuna agertzen duten argazkiak eta mendiak dituen arazoez ohartaraziko duten argazkiak biltzea da lehiaketaren helburua. Ondoren, saritutako argazkiekin 2001. urteko egutegia egingo da. Argazkiak helbide honetara bidali ekainaren 12a baino lehen: Gipuzkoako Mendizale Federazioa / Anoeta estadioa / Anoeta pasealekua, 5 / 20014-Donostia. Informazio gehiago: 943-461440.



Pasaiatik 50 gailurretara

■ Pasaiako Jaizkibel mendi taldeko bazkide eta lagunek, bere 50. urteurreneko ospakizunen baitan, Euskal Herri osoko 50 gailurretara igoko dute igande honetan. Herrialde bakoitzeko mendirik altuena eta txikiena, Gipuzkoako mendi ezagunenak eta Pasaiako bueltakoak aukeratu dituzte. Ekintza honen bitartez, Jaizkibel mendi taldeak euren aurrekoak eta aitzindariak omendu nahi ditu.